

Prentsa-oharra

Aeronautikan segurtasuna hobetzeko sentsoreak

- ▶ *Tekniker FluidER proiektu europarraren burua da; projektuan parte hartuko dute, halaber, Safran Landing Systems eta Element Sevilla enpresek*
- ▶ *Proiektu honetan sentsoreak garatuko dira, denbora errealean hegazkineriako fluido hidraulikoen eta eragingailu elektrohidraulikoen egoera monitorizatzeko; hala, segurtasuna eta eraginkortasuna hobetuko dira*

(Eibar, 2020ko otsailak 13).- [Tekniker](#) zentro teknologikoa, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kide dena, FluidER proiektu europarraren burua izango da; ekimen horretan sentsore adimendunak garatuko dira, hegazkineriaren sektorean bai fluido hidraulikoen bai eragingailu elektrohidraulikoen egoera denbora errealean monitorizatzeko gai direnak.

Proiektuaren helburua da aeronautikaren arloan segurtasuna hobetzea eta mantentze-lanen kostuak optimizatzea. Horretarako, Teknikerrez gain, proiektuak beste bi parte-hartzaile izango ditu: batetik, [Safran Landing Systems](#), aeronautikarako eragingailuen eta balazten fabrikazioan aditua; eta, bestetik, [Element Sevilla](#) laborategia, sentsore guztiz integratu eta autonomia sortzeko baldintza errealak eskainiko dituen; sentsore hori gai izango da hegazkineriako eragingailuetan erabilitako fluido hidraulikoen diagnostikoa online egiteko.

Horretarako, Teknikerrek fluido hidraulikoen parametro fisiko-kimikoak eta horien biskositatea, hezetasuna, tenperatura eta abar neurtzeko gai diren sentsoreak konbinatu nahi ditu. Kutsadura hautematen duten sentsoreekin, airea, ura edo partikulak dauden ere detektatzen baitute.

Mantentze-lan adimenduna

Fluido hidraulikoek huts egin baino lehen degradazioa hautemate aldera, proposatu den diagnostikoa bi motatako sentsoeren konbinazioan oinarrituta dago: fluido hidraulikoen parametro fisiko-kimikoak neurtzen dituztenak eta fluidoek kutsadura neurtzen dutenak.

Ekimenaren burua izateaz gain, degradatutako fluidoekin probak egiteko makina prestatuko du Teknikerrek; hala, probak modu kontrolatuan egingo dira, egun merkatuan dauden sentsoerekin duten gaitasuna egiaztatzeko. Sentsoere eraginkorrenak konbinatuz, algoritmoa garatuko du, adimen artifizialeko teknikak erabilita, denbora errealean eta online bai fluidoek bai eragingailuaren egoera monitorizatzeko.

Bestalde, Safran Landing Systems enpresak eragingailuen gaineko jakintzarekin egingo du ekarpena, ondo baitaiki nola funtzionatzen duten, haien degradazioa eta abar; eta Element Sevilla laborategiak sentsoerak probatuko ditu bere instalazioetan, funtzionamendu errealearen simulazioa eginez.

Halaber, fluidoek lotuta ikasitakoa beste sektore batzuetan ere aplikatu ahal izango da, adibidez, energiaren sektorean, segurtasuna hobetzeko eta kostuak murrizteko.

Teknikeri buruz

Teknikerrek 40 urte inguruko esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen Ingeniaritzan, Produktu-ingeniaritzan eta IKTetan), eta horrek abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen dio. Zentro teknologikoa Basque Research and Technology Alliance (BRTA) partzuergo zientifiko-teknologikoko kidea da.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

Tekniker | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Ane Roteta

ane@guk.es | Tel. 690 212 067

////////////////////////////////////

This project has received funding from the Clean Sky 2 Joint Undertaking under European Union's Horizon 2020 research and innovation programme under grant agreement n° 831998.